

MULTIKIROL LIGAXKA

Urien Crespo, Fernando*; Kano Kortajarena, Ane**

*Orokieta Herri Eskola

**Antoniano Ikastetxea

Harremanetarako helbide elektronikoa: **ike@lizardi.eus**

Arloa: Prestakuntza kirola – Eskola Kirola.

Laburpena:

“Multikirol Ligaxka-k” gure eskualdeko kirol gutxituak ezagutzeko aukera ematen du. Errotazio sistema batean antolatuta, kirol bakoitzari dagokion Kirol Elkarteak laguntza eta babes teknikoa emateaz arduratu delarik.

Larunbata bakoitzean, ikasle talde bakoitzak (10 laguneko talde mistoak) kirol ezberdin bat landu du.

Benjaminen kasuan: bola eta toka, malabareak, irristaketa, tenis eta errugbia izan dute aurretan.

Alebinak berriz: surf, sofbol, arrauna, kirol egokitua eta atletismoa egin dute, eta parte hartu duten elkarteek, 5 larunbata jarraian goiz osoan zehar eskola kiroleko haurrentzat lan egin dute.

Izena eman duten haurrek (700tik gora), kategoriari dagozkien kirol guztietan parte hartzeko konpromisoa hartzen dute. Horrela, eta taldeka, “denok denetik” lantzen dute.

Hau guztia ikastetxe eta kirol elkarten adostasunez egin da, azken lau ikasturteetan, eta ohiko talde kirolen txapelketak errespetatuz. “Ligaxka” hau jorratu den bitartean, ikastetxeetako ohiko entrenamenduak mantendu egin dira. Horrela, ligaxkaren aurretik futbola, eskubaloia eta saskibaloia ikastetxeetan zuten presentzia (entrenamendu kopurua eta abar) mantendu egin da.

Gako-hitzak: eskola-kirola, kirol-hastapena, kirol-aniztasuna, giro-ona, elkar-lana.

Sarrera (helburuak edo asmoak zehaztu amaieran)

Ba dira lau ikasturte ekintza hau aurrera ateratzen dugula Zarautz, Orio, Getaria eta Aiako ikastetxe eta eskualdeko zenbait Kirol Elkarten artean.

2013-14 ikasturtean izan zen lehenengoa, eta ikasturte horretan, ikasturte amaieran egiteko ekintza moduan aurkeztu zen. Izan zuen arrakastari jarraituz, 2014-15 ikasturtean berriro antolatu genuen, hori bai, ikasturte amaierako ekintza izan ordez, ikasturte hasierakoa bihurtu zen, kirol elkarteek eta ikastetxeek horrela egokiagoa ikusten genuelako.

Ohiko multikirola hasi aurretik egiteko ekintza bihurtu zen “Multikirol Ligaxka”. Inork ez genuen nahi geneukan talde kirolen liga galdu, kirol aniztasuna egokia iruditzen zaigu, eta beste kirolei ere (minoritarioei) bultzada bat eman nahi genien.

Bestalde, eskualdean ikusten ari ginen zenbait kirol elkarte beraien “kirol kuttuna” haurrei ezagutarazteko irrikan zeudela, ikastetxeetara eraman eta zabaldu nahi zuten.

Eta, larunbat goizetan horrela aritzeak ez zuela astean zehar ikastetxeetan egiten zen lana oztopatzen ikusi genuen. Berdin mantendu genezakeen ikastetxeetan egiten ziren futbol, eskubaloi, saskibaloi eta eskupilotako entrenamenduak.

Txapelketarik gabeko antolakuntza egin genuen, eta emaitzak onak izan ziren. Parte-hartzea eta haurren edo gurasoen inplikazioa ez zegoen txapelketaren egituraren menpe.

Txapelketarik gabeko kirol jarduera eskaini genuen.

Parte-hartzaile motak eta kopurua

Gure Multikirol Ligaxka honetan eskualdeko ikastetxe guztietako LH 3, 4, 5 eta 6. mailako haur guztiak hartu dezakete parte, neskaz eta mutilez osatutako taldeak, eta ahal den neurrian (ia kasu guztietan horrela da) gela bereko ikasleak dira.

Guztira ikasturte honetan bederatzi kirol elkarte, zazpi ikastetxe eta 700 haur baino gehiago izan dira parte-hartzen.

Instalazioak

Kirol anitzak izanik, instalazio hauek guztiak erabiltzen dira bost larunbatetan:

- Astiko Errugbi zelaia.
- Itxas-Mendi auzoko atletismo pista.
- Itxas-Mendi auzoko teniseko pistak.
- Orokieta Herri Eskolako estalitako kantxa.
- Zarauzko Surf Elkartearen egoitza.
- ”Zinema” pilotalekua.
- Zarauzko Arraun Elkartearen Egoitza
- Orioko Sofbol zelaia.

Erakunde parte-hartzaileak

- Zarautz, Orio, Getaria eta Aiako ikastetxe guztiak.
- Zarauzko Arraun Elkartea.
- Zarauzko Surf Elkartea
- Antoniano Kirol Elkartea.
- Orioko Sofbol Taldea.
- Zarautz Kirol Elkartea, Errugbi atala.
- Bolakontrola Tennis Taldea.
- Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioa.
- EKAP (Eskola Kirolaren Aldeko Plataforma)

- Zarauzko Udala
- Hernani Kirol Elkartea (Irristaketa).

Eta aurreko urteetan Gurutzurtu Aisialdi Taldea, Zarautarra Txirrindularitza Taldea, Balea Igeriketa, Orio Arraun Elkartea eta Zarautz Kirol Elkarteko Xake Taldea ere.

Giza baliabideak

Aurreko atalean aipatutako erakunde guztien begirale eta guraso arduradunak, ikastetxeetako kirol koordinatzaileak, udal teknikaria.

Material baliabideak

Kirol elkarrekin jarri dituzte berariazko material guztiak, dohainik: surf taulak, neoprenoak, bateak, kaskoak, baloiak, gurpildun aulkiak, enbarkazioak, koltxonetak, saltometroa, eta abar luze bat.

Esperientziaren deskribapena

Ikastetxe guztiek haurrak taldeka antolatu dituzte, ahal den neurrian gela bakoitzeko talde bat (edo bi), gutxi gora behera hamar hurrez osatuta eta mistoa. Alebinak eta benjaminak bereiztu, kategoria bakoitzean zenbait kirol ezberdinak lantzeko, ezagutzeko eta gozatzeko aukera antolatu dugu, bost larunbat jarraituetan gauzatuz, urria eta azaroan.

Benjaminen kasuan: errugbi, patin irristaketa, malabareak eta boloak eta toka, eta tenisa. Aurreko urteetan xake, mendia eta igeriketa ere izan dute.

Alebinen kasuan: atletismoa, kirol egokitua, arrauna, surf eta sofbola. Aurreko zenbait ikasturteetan txirrindularitza ere izan dute.

Bi kategori hauek antolatzerakoan, eta aurkezten ziren kirolen eta antolatzaileen ezaugarriak kontuan izanik, modu ezberdinetan egin dugu. Hori bai, bai benjaminak, bai alebinak ere, izen emandako haur guztiek aurkeztu zaizkien kirol guztietan parte hartzeko konpromisoa hartzen dute.

Batetik benjaminak: mailakaturik, LH 3-koak errugbi egiten duten larunbatean, LH 4-koak tenis izan dute. Segidan, hurrengo larunbatean, alderantziz egiteko. Modu berdinean irristaketa batean eta malabarrak eta bola eta toka bestean. Benjaminetan 400 haur inguruk parte hartu dutela kontuan izan behar dugu, 46 taldetan banaturik. Horrela, kirol ekintza gehienetan, haurrak ordubeteko saiorako deia jasotzen dute, eta ordu bakoitzean 5-6 talde batera aritzeko moduan antolatzen ditugu, larunbata goizean lau txandatan.

Bestetik alebinak. Hemen antolaketa korapilatsuagoa izan da. Bost kirol aurkezten zaizkie, bost larunbata dira, 35 talde (bakoitzean 10-14 haur), beraz, larunbata bakoitzean zazpi talde aritzen dira kirol bakoitzean, kasu gehienetan larunbatero ordubeteko lau saioetan eta bi talde batera, eta errotazio sistema baten bidez. Horrela, bost larunbata horiek pasatzen direnean, talde guztiak kirol guztietan aritu dira.

Alebinen antolaketa honetan, zenbait kirolean haurren ratioak asko zaindu behar ditugula kontuan izan behar dugu, batez ere arrauna edota surfean aritzeko momentuan. Horregatik hartzen dira bakarrik bi talde kirol bereko txanda bakoitzean.

Kirol hauetako bi Orion egin behar izateak beste zailtasun bat gehitu du: Zarauztik Oriora ikasle talde guztiak mugitu beharra. Eta Zarauzko ikastetxeen taldeentzat mugikortasun plan bat antolatu dugu. “Autobus linea bat” sortu dugu Zarauzko ikastetxe guztien artean; horrela modu ekonomiko, jasangarri eta seguru batean garraiatzen ditugu haurrak Zarauztik Oriora.

Balorazioa eta ondorioak

Hau da eskualdeko Ikastetxeek osatutako 2015-16ko memorian jartzen duena:

“Zarautzen, kirolean dugun parte hartze handia, urteetan, eskola kirolean izandako egituraren ondorio da. Urte luzeetan, kirol ezberdinak lagun giroan praktikatzeko aukerak, gerora kirol ezberdinetan aritzeko oinarria eta gogoa sustatu izan du. Egun, saskibaloia, eskubaloia eta futbola oso errotuta daude Zarautzen. Hau guztia dela eta, eskola kirolean beste kirol batzuk sartzen hasi nahi dugu, gure ikasleei eskaintza zabalduaz. Zergatik eskaini kirol gehiago?

Gure ikasleen garapen motorra aberatsagoa izateko.

Kirol ezberdinak ezagutzeko aukera emateko.

Sentsibilizazio ezberdinak garatzeko.

Zenbat eta kirol eskaintza zabalagoa izan, ikasleek aukera ezberdin gehiago izango dituztelako baten bat aukeratzeko orduan eta honela ikasle aktibo kopuru handiago bat izatera iritsi gaitzkeelako.

Modu ludikoagoan jorratu ditzakegulako.”

eta baita:

“Orokorrean, ikasle, guraso eta ikastetxeen balorazioa oso positiboa izan da.”

Aldaketa positiboak:

- *Multikirol ligaxkak oposizio gabeko kirolen hastapena eta sustatzea ahalbidetzen du.*
- *Tenisa eta xakea gehitzea benjamin mailan oso aldaketa positiboa izan da. Haurrak eta elkarteak oso gustura aritu dira lanean.*
- *Kooperazioan oinarritzen diren multikirol ligaxkako kirol ezberdin hauek gauzatzean eta talde mistoak direnez, ohiko kirolean landu ezin ditugun baloreak lantzeko aukera ematen digu.*

Mantendu beharreko puntuak:

- *Autobusaren antolaketa eta koordinazioa.*
- *Sailkapenik ez egotea.*

Hobetu beharrekoak:

- *Izen ematen duten eta ekintzetara azaltzen diren haur kopuru ezberdintasuna hori gutxitzea. Konpromisoa gehitu behar dugu guztion aldetik, koordinatzaile-guraso-ikasle.*
- *Benjaminei luzatzen zaien eskaintza.*

Puntu sendoak:

- *Integratzailea eta kooperatiboa dela.*

- Kirol berriak ezagutzeko eta gozatzeko aukera.

- Herriko beste kirol elkarteekin elkarlana.”

Arlo ezberdinetatik ondorio eta balorazio positiboak ere azpimarratu ditzakegu:

Oso aukera egokia da kirol modalitate ezezagunak (edo gutxiago ezagutzen direnak) eskualdean non praktikatzen diren azaltzeko. Eta horrela eskola kirola amaitutakoan nahi duen haurrak non hasi badaki (haurrei modu egokian aukerak zabaltzen zaizkie).

Eta gainera, ikasturte hasieran gauzatzen den ligaxka honi esker, beste ohiko kiroleko taldeek denbora dute entrenamenduetan lan pixka bat egiteko partiduak hasi aurretik.

Amaitzeko, haur, guraso, ikastetxe eta elkarten balorazio eder honi gehitu diezaiokegu, umeen parte-hartze lasaia eta gustura aritzea, dohainik den ekintza, garraio kolektibo jasangarria (eta Foru Aldundiak diruz lagundutakoa), gurasoen poza, eta kirol elkarteek beraien kirol jarduera eskualdeko haur guztiei ezagutarazteko eta zabaltzeko aukera aparta.

Gehiago ezagutzeko estekak

Eskualdeko zenbait elkarte eta ikastetxeetako webguneetan topa daitezke ligaxka honen antolaketako koadroak eta abar, adibidez:

<http://orokieta.net/orokieta.php?seccion=5&subseccion=4&lang=eu>

Adibide gisa, hemen ikasturte honetan, alebinetan izan dugun ekintzen koadroa:

	URRIAK 1		URRIAK 15		URRIAK 22		URRIAK 29		AZAROA 5	
A	SURF		ATLETISMOA		SOFBOL		KIROL EGOKITUA		ARRAUNA	
9	IKASTOLA 5A	XINPLIAK	IKASTOLA 5E	OROKIETA 5D	SALLEKO 5A1	IKASTOLA 5D	OROKIETA 5D	OROKIETA 5A	IKASTOLA 5D	OROKIETA 5A
10	OROKIETA 5A	SALLEKO 5A1	IKASTOLA 5A	XINPLIAK	IKASTOLA 5E	OROKIETA 5D	IKASTOLA 5E	IKASTOLA 5B	OROKIETA 5B	IKASTOLA 5B
11	IKASTOLA 5B	IKASTOLA 5E	OROKIETA 5A	SALLEKO 5A1	IKASTOLA 5A	XINPLIAK	XINPLIAK	SALLEKO 5A1	SALLEKO 5A1	IKASTOLA 5A
12	OROKIETA 5B		IKASTOLA 5B		OROKIETA 5A		IKASTOLA 5A		XINPLIAK	
B	ARRAUNA		SURF		ATLETISMOA		SOFBOL		KIROL EGOKITUA	
9	SALLEKO 5B	IKASTOLA 5C	ZARAGUETA 5	OROKIETA 5C	OROKIETA 5C	ANTONIANO 5	OROKIETA 5D	IKASTOLA 5D	IKASTOLA 5D	IKASTOLA 5C
10	OROKIETA 5C	IKASTOLA 5D	IKASTOLA 5D	OROKIETA 5D	ZARAGUETA 5	OROKIETA 5D	ANTONIANO 5	IKASTOLA 5C	ANTONIANO 5	ZARAGUETA 5
11	OROKIETA 5D	ZARAGUETA 5	IKASTOLA 5C	ANTONIANO 5	IKASTOLA 5D	SALLEKO 5B	SALLEKO 5B	OROKIETA 5C	SALLEKO 5B	OROKIETA 5D
12	ANTONIANO 5		SALLEKO 5B		IKASTOLA 5C		ZARAGUETA 5		OROKIETA 5C	
C	KIROL EGOKITUA		ARRAUNA		SURF		ATLETISMOA		SOFBOL	
9	IKASTOLA 5F	DORAEONAK	LARDIZABAL 56 ITURZAETA		ANTONIANO 6A	IKASTOLA 5F	IKASTOLA 5F	OROKO 5-8	ANTONIANO 6A	DORAEONAK
10	LARDIZABAL 56 ITURZAETA		IKASTOLA 5F	OROKO 5-8	DORAEONAK	PENELPIAK	SALLEKO 5A2	PENELPIAK	LARDIZABAL 56 ITURZAETA	
11	SALLEKO 5A2	OROKO 5-8	PENELPIAK	SALLEKO 5A2	LARDIZABAL 56 ITURZAETA		DORAEONAK	ANTONIANO 6A	SALLEKO 5A2	IKASTOLA 5F
12	ANTONIANO 6A	PENELPIAK	ANTONIANO 6A	DORAEONAK	SALLEKO 5A2	OROKO 5-8	LARDIZABAL 56 ITURZAETA		OROKO 5-8	PENELPIAK
D	SOFBOL		KIROL EGOKITUA		ARRAUNA		SURF		ATLETISMOA	
9	OROKIETA 6A	IKASTOLA 6A	LA SALLE 6B	LANGOSTINOAK	ANTONIANO 6B	OROKIETA 6D	IKASTOLA 6A	LA SALLE 6C	LA SALLE 6B	OROKIETA 6A
10	LA SALLE 6C	ANTONIANO 6B	OROKIETA 6A	IKASTOLA 6A	LANGOSTINOAK	LA SALLE 6B	ANTONIANO 6B	OROKIETA 6D	IKASTOLA 6A	LA SALLE 6C
11	OROKIETA 6D	LANGOSTINOAK	LA SALLE 6C	ANTONIANO 6B	OROKIETA 6A	IKASTOLA 6A	LANGOSTINOAK	LA SALLE 6B	ANTONIANO 6B	OROKIETA 6D
12	LA SALLE 6B		OROKIETA 6D		LA SALLE 6C		OROKIETA 6A		LANGOSTINOAK	
E	ATLETISMOA		SOFBOL		KIROL EGOKITUA		ARRAUNA		SURF	
9	OROKIETA 6B	KANTAUARI	IKASTOLA 5G	LA SALLE 6A	ZARAGUETA 6	OROKIETA 6C	ZARAGUETA 6	IRRIKITOWN	OROKIETA 6C	OROKIETA 6B
10	IRRIKITOWN	ZARAGUETA 6	OROKIETA 6B	KANTAUARI	IKASTOLA 5G	LA SALLE 6A	IKASTOLA 5G	OROKIETA 6C	ZARAGUETA 6	LA SALLE 6A
11	OROKIETA 6C	IKASTOLA 5G	IRRIKITOWN	ZARAGUETA 6	OROKIETA 6B	KANTAUARI	KANTAUARI	LA SALLE 6A	IKASTOLA 5G	IRRIKITOWN
12	LA SALLE 6A		OROKIETA 6C		IRRIKITOWN		OROKIETA 6B		KANTAUARI	

Eta baita ikasturtean zehar izango den eskola kiroleko plangintza orokorra (xake eta eskupilota ez dira koadroan azaltzen, ezta eskubaloia eta futboleko final erdiak eta finalak ere):



ESKOLA KIROLA: 2016-2017 EGUTEGIA



HILABETEA	EGUNA	3. ^{er} a 4. L.H.(Benjamin)	5. ^{er} a 6. L.H.(Alebin)
IRAILA	17 larunbata	TXIRRINDULARI TXIKI	TXIRRINDULARI TXIKI
	24 larunbata	Atletismoa	Rugby
URRIA	1 larunbata	Multikirola (Rugby/tenis)	Multikirola
	15 larunbata	Multikirola(Tenis/Rugby)	Multikirola
	22 larunbata	Rugby	Multikirola
	29 larunbata	Multikirola	Multikirola
AZAROA	5 larunbata	Multikirola	Multikirola
	12 larunbata	Eskubaloia	Saskibaloia
	19 larunbata	Eskubaloia	Saskibaloia
	26 larunbata	Eskubaloia	Saskibaloia
ABENDUA	3 larunbata	Futbola	Futbola
	17 larunbata	Futbola	Futbola
URTARRILA	14 larunbata	Eskubaloia	Saskibaloia
	21 larunbata	Eskubaloia	Saskibaloia
	28 larunbata	Futbola	Futbola
OTSAILA	4 larunbata		Saskibaloia
	10 ostirala		Saskibaloia f. erdiak
	11 larunbata	Futbola	Futbola
	12 Igandea		Saskibaloia finalak
	18 larunbata	Saskibaloia	Eskubaloia
MARTXOA	25 larunbata	Futbola	Futbola
	4 larunbata	Saskibaloia	Eskubaloia
	11 larunbata	Futbola	Futbola
	18 larunbata	Saskibaloia	Eskubaloia
APIRILA	25 larunbata	Saskibaloia	Eskubaloia
	1 larunbata	Saskibaloia	Eskubaloia
	8 larunbata	Saskibaloia	Eskubaloia
MAIATZA	29 larunbata		
	6 larunbata		
	13 larunbata		
	20 larunbata		

Surf,
Sofbol,
arrosa,
bokal,
egokua, eta
atletismoa